

Klausula Sozialak



Pertsona baztertuen
Kontratazio Publikoa
eta Laneratzea



LABURPEN DOKUMENTUA

LAMEGI Garapen Taldea



Harremanetarak: Berriztapen Elkarte

Ekain Koben 3, 1^o kalea • Telefonoa: 944 150 883 • Faxe: 944 156 319
lamegi@lamegi.org • www.lamegi.org

Egilea: Santiago Lesmes Zabalegui

Proiektu hau Europako Gizarte Funtsaren Equal Ekimenak, kofinantziazten du. Argitalpen honen edukia egileen erantzukizunpekoa da, eta inolaz ere ez da ulertu behar Europar Batasunaren jarrera islatzen duenik.

Merkataritza-Izaerakoa ez dela adierazten duen Aitorpena. Compartir!gual 2.5

Dokumentu honek Creative Commons erakundearen lizentzia dauka.
Lizentzia osoa: <http://creativecommons.org/licenses/by-nc-sa/2.5/es>

Dokumentu hau “Klausula Sozialak: Kontratazio publikoa eta gizarteratzea nahiz laneratzea”-ren argitalpenaren laburpena duzu, liburuan eta CDan argitaratua 2006ko maiatzan.



Gizarte bazterkeria eta laneratzea

Foessa txostenaren arabera, Espainian 8.509.000 lagun bizi dira pobrezia-atalasearen azpian (Euskal Autonomia Erkidegoan, herritarren %30). Ekonomia-baliabiderik ezak, berez, ez dakar gizarte-bazterkeria; hainbat arrazoi daude arazo horren azpian. Beraz, arazoari heltzeko, hainbat faktore ere hartu behar dira kontuan.

Hain zuzen ere, enplegua bihurtu da gizarteratzeko mekanismo nagusietako bat, eta gizarteratzearen alde abian jarri diren hainbat politikak alderdi ekonomikoaren bidezko gizarteratzea lehenesten dute, hainbat ekintzaren bitartez: informazio- eta orientazio-zerbitzuak; enplegu- edo bitartekotza-agentziak; prestakuntza-baliabideak; ekintzaileentzako aholkularitza eta finantza-laguntzak; gizarte-enplegu babestuko programak; korporazio-erantzukizun soziala sustatzea; edo laneratze-enpresak.

Hala eta guztiz ere, ekintza horiek ez dira nahikoak oraindik, alderdi garrantzikoenean huts egiten baitute: enplegu zehatz bat eskuratzea. Horregatik, kontratazio publikoan klausula sozialak sartzeko proposamena egin nahi dugu, klausula horiek alderdi ekonomikoaren bidezko bestelako laneratze-ekintzen osagarri direla aintzat hartuta. Gainera, klausula horiek garrantzi handikoak direla nabarmendu behar da, **baztertu egoeran dauden herritarrei lan-aukerak emateari lehentasuna ematen baitiote, laneratze-enpresa edo ohiko enpresa batean**. Klausula sozialen bitartez, honako bi helburu hauek lortzen dira:

- Alde batetik, laneratze-enpresei merkatua ematea, kontratuen esleipen publikoaren bidez. Horrek laneratze-enplegua sortzea dakar.
- Bestetik, irabazi-asmoa duten enpresa arruntak gizarteratzeko eta laneratze helburua lortzeko prozesuan biltzea, bazterkeria-egoeran dauden lagunak kontratatzea balioetsiz edo eskatuz, lanpostuen %2 ezindu egoeran daudenentzat erreserbatzarekin egiten den moduan.

Zer dira klausula sozialak?

Klausula honela defini daiteke: kontratu baten edukiera zehazten duen xedapen bakoitza. Alderdien eskubideak eta nahitaezko betebeharrak ezartzen dituzte xedapen horiek.

Eta proiektuari dagokion adieran, berriz, **honela definitzen ditugu Klausula Sozialak: kontratazio publikoko prozesuetan gizarte-politikari buruzko alderdiak txertatzea, eta zehazki, gizarte-bazterkeriako egoeran edo arriskuan dauden lagunentzako enplegua sustatzea, haien gizarteratzea eta laneratzea errazteko.**

Aukerak

Herri Administrazioen kontratuen esleipena arautzen duen legeriaren arabera, kontratazio-prozesuaren hainbat fasetan txerta daitezke Klausula Sozialak, kontratuaren xedea zehazterakoan edo zehaztapen tekniko zehatzak eskatzerakoan, esaterako. Dena dela, honako hiru une giltzarri hauek aipatu nahi ditugu bereziki:

- **Lizitazaileak onartzeko fasea, hautaketa-irizpidea den aldetik.** Laneratze-enpresen bitartez, honako kasu hauetan kontrata daiteke:
 - **Kaudimen teknikoko betebeharrak gisa**, baldin eta laneratzea funtsezkoa bada kontratuan; kasu horretan, laneratze-enpresek soilik izango dute horrelako kontratuak behar den bermearekin egiteko aukera.
 - **Babespeko merkatu baten bidez**. Kontratuen ehuneko bat laneratze-enpresei esleituko zaie.
 - **Prozedura negoziatua eta kontratu txikia baliatuz**; baliabide horiek aukera ematen dute laneratze-enpresekin zuzeneko kontratuak egiteko.

- **Puntuazio Fasea.** Esleipena zehazten duten baremoetan **Balioespen Irizpide bat** aplikatuko da, eta bazterkeria-egoeran dauden lagunak kontratatzea hartuko du kontuan irizpide horrek. Borondatezkoa izango da, eta, praktikan, onuragarria laneratze-enpresentzat. Dena dela gainerako enpresentzat ez da izango ez baztertzaila ez kaltegarria, enpresa horiek ere konpromiso honekin bat egiteko aukera izango dutelako.
- **Gauzatze Fasea, Behartzeko Irizpide gisa.** Enpresa esleipendunari eskaera egingo zaio kontratua gauzatzerakoan lan-merkatutik baztertutakoak kontrata ditzan, hau da, lanpostuen kopuru edo ehuneko bat bazterkeria-arriskuan daudenentzat gorde ditzan. Kasu horretan, erabateko baldintza-berdintasuna eskatu behar da, enpresa arrunten eta laneratze-enpresen artean.

Klausula Sozialen abantailak eta ezaugarriak

- Klausula sozialak laneratzeko tresna egokiak dira, eraginkortasun nabarmeneko eta irismen handiko tresnak, alegia.
- Behar diren gaitasun-ezaugarriak dituzte: zeharkakotasuna, eragina, konpromiso politikoa, lankidetzeta, erantzunkidetasuna, transferentzia eta errepikagarritasuna.
- Hainbat alorretan, errentagarritasuna sorrarazten dute: produkzio-alorrean, alor publikoan, alor indibidualean eta alor komunitarioan.
- Politika horren bidez, alderdi guztiek irabazten dute. Izan ere, denei ekartzen dizkie onurak, pertsona nahiz familiei, herri-administrazioei, gizarte-zerbitzuei, laneratze-erakundeei eta merkataritza-enpresei, hain zuzen ere.

Gainera, laneratzeko beste baliabide eta jardueren osagarri izateaz eta haiekiko sinergiak sortzeaz gain, klausula sozialek baliabide eta jardueraren eraginak ugartzen dituzte, baita haien eraginkortasuna nabarmen hobetu ere.

Kosturik gabeko edo saldo positiboko baliabidea da. Badira programa batzuk kostu osagarririk ez dutenak; beste batzuek, aldiz, dauden baliabideak berriz ere antolatzea eskatuko lukete.

Kasu batzuetan klausula sozialak ezartzeak berariazko aurrekontua esleitzea eska dezakeen arren, ezin dugu ahaztu gizarteari begira errentagarriak direla, eta, gainera, kostu hori inbertsioa dela. Izan ere, frogatuta dago ekonomiaren aldetik aurrekontu publikoetarako errentagarria dela gizartean barne hartuta dagoen pertsona, ez, ordea, gizartean barne hartu gabe dagoena.



6

Laneratze Enpresen Espainiako Federazioak (Fedei) 2005ean egindako azterlana –“Identificación y diagnóstico integral de las empresas de inserción en España”–, hau ondorioztatzen du:

Langile bakoitzak sortutako ekonomia-fluxuak (Laneratze Enpresen diru-sarrerak eta zergak) eta laneratze-langile bakoitzaren aurrezki (urteko gizarte-kostu txikiagoa biztanle bakoitzarentzat) batera aintzat hartzen baditugu, **15.508 euro inguruko onura ekonomikoa izango dugu urtean, laneratutako lagun bakoitzeko.**

Kontratazio publikoa

Kontratazio publikoak ekonomian duen indarra baliatzen dute klausula sozialek; izan ere, Europar Batasuneko Administrazioek bilioi bat euro baino gehiago baliatzen dituzte ondasun eta zerbitzuak eskuratzeko, eta hori BPGaren %15 inguru da, eta 2.000 eurotik gora biztanleko eta urteko.

Agintari publiko batek kontratu bat esleitzen duen bakoitzean, esleipen horrek eragina sortzen du merkatuan eta inguruan. Kezka sortu beharko liguke kontratazio publikoak edo zerbitzuak kanporatzeak dakarren eraginak: enplegu prekarioa, gaizki ordaindua, lan-istripuen indize altuak, eta aukera-desberdintasuna laneratzeko zailtasun handiena dutenentzat. Herri Administrazioak askotariko zereginetan dihardu kontratazioa dela-eta:

- Batetik, **fondo eta aurrekontu publikoen kudeatzaile-lanak** egiten ditu. Beraz, gastua eraginkor bideratzeko eskatu behar zaio. Hori ez da kontratu bat egoki betearaztea soilik. Are gehiago, gizarte-arloko eraginak bultzatu behar ditu eta laneratzeko sistema elkarrengaineko jardun behar du.
- **Kontsumitzailea den aldetik**, “kontsumo arduratsua” ahalbidetu behar du, baita gizarte-arloan inpaktu positiboa eragin ere. Hala, irizpide etiko eta iraunkorren alde egitean, hornitzaile eta kontratatzaileak sustatu egiten ditugu estandar edo betebehar sozialak bete ditzaten, baita eginkizun hori bete dezaten eskatu ere.
- **Eredu diren aldetik**: botere publikoak gizarte- eta ekonomia-eragileentzako eredu ere badira. Beraz, inork baino erantzukizun handiagoa dute praktika eredugarriak bultzatzeari, sentsibilizatzeari eta zuzen jarduteari begira, herritarren eta gizarte eskubideak bermatzearen aldeko agindu publikoarekin bat etorritik.
- **Legegintza-ahalmena duten aldetik**. Administrazioek araudi propioak gara ditzakete, edo komenigarritzat jotzen dituzten itun eta baldintzak hitzartu, eta klausula sozialek ere beren tokia dute horien guztien barruan. Hortaz, agenda politikoan lehentasuna duten alderdien ardatz bihurtzen da kontratazioa.

Beraz, zentzugabea da enpresen portaeran eragin handia duen tresna boteretsu horrek printzipio sozialak ia-ia erabat baztertea, edo –obrak, hornidurak edo zerbitzuak kontratatuz– komunitate-etekinak lortzeari uko egitea. Aitzitik, ahalegin txikia eginez, eragin neutro edo negatiboa eragin positibo bihurtzea lortzen da, onespren handiko eragin bihurtzea lortu ere. Horregatik, kontratazio publikoak gizarte-helburuak aintzat hartu eta eskatu beharra berretsi eta aldarrikatzen dugu, pertsona nahiz talde behartsuen gizarte-bazterkeriari eta langabeziari aurre egiteko tresna egokia baita.

■ Andaluziako Kontsulta Batzordearen 146/2004 Irizpenak honela jaso du: **“Aditzera eman beharra dago gero eta gehiagotan txertatzen direla klausula sozialak kontratazio publikoan. Horrela behar du nahitaez bere burua Zuzenbideko Estatu sozial eta demokratikotzat duen Estatu batean”**.

■ Auzitegi Gorenak 1997ko maiatzaren 23an emandako Epaiak ere honako hau ezarri zuen: **“Administrazioa ez dago preziorik onena onartzeria behartuta, interes publikoarentzat onuragarriena den eskaintza baizik”**.

■ Nafarroako Kontratuei buruzko Foru Lege berriaren hitzaurrea ere argigarria da horri dagokionez: **“Foru Legeak, izaera sozialeko lehenbiziko neurri gisa, bide ematen du tailer babestuekin edo enplegu babestuko programetara bildutako enpresekin egiten diren kontratu batzuk bere aplikazio-eremutik ateratzeko. Kontratazio publikoa antolamenduan onesten diren balio gorenen zerbitzuan jartzen duen ikuskera instrumental hori ekarri da testura, kontratazio publikoaren ikuskera ekonomizista, aldebakar eta sinplistari uko eginda”**.

Egia esan, kontratazio publikoak bere oinarritzko printzipioei (lehia librea, gardentasuna eta diskriminaziorik eza) euts diezaike, eta, are gehiago, eutsi egin behar die; baina, horiez gain, gizarte-arloko beste printzipio eta helburu batzuk ere jaso behar ditu. Printzipio horiek uztartzea zilegia izateaz gain, bat dator antolamenduko printzipio gidariekin. Era berean, eraginkorra da, kontratazioaren aurrekontua helburu jakina duten jardueretarako aprobetxatzen direlako; laudagarria ere bada, gizarte-kohesioan aurrera egiten delako; sinergikoa da, eraginak ugaritzen dituen jarduera baita; eta, horrez gain, errentagarria da ekonomiari eta komunitateari dagokienez.

Egungo araudiak Klausula Sozialak arautzen ditu

Kontratuen esleipen publikoan irizpide sozialak jasotzeko asmo horrek hainbat aurrekari ditu. Honako hauek dira, besteak beste: 1996ko “Kontratazio publikoa Europar Batasunean. Etorkizunerako hausnarke-tak.” Liburu Berdea; 1998an Europako Batzordeak “Europar Batasuneko Kontratazio Publikoari” buruz egindako komunikazioa; 2000ko Europar Erkidegoetako Ekonomia eta Gizarte Lantaldearen Irizpena; edo 2005-2006 Gizarteratzeko Ekintza Plan Nazionala. Une honetan, ordea, ez dugu zertan gomendio eta proposamenetara jo; legegintza-aldaketa batzuk egin dira jada. Hona hemen interesgarrienak:

- 2004ko martxoaren 31ko Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2004/18/EE Arteztaraua, obren, horniduren eta zerbitzuen kontratu publikoak esleitzeko prozedurak koordinatzeari buruzkoa. Maila gore-neko araua da, eta Europar Batasuneko estatukideen kontratuen lege-ria arau horri egokitu behar zaio. Kontratazio publikoan irizpide sozia-lak txertatu beharra ezarri du arau horrek, lehen kontuan hartuzkotik ezarri ere: *“Justizia Auzitegiaren jurisprudentzian oinarrituta dago Arteztarau hau, batez ere esleitzeko irizpideei buruzkoa, erakunde esleitzailleek eraginpeko herritarren premiei erantzuteko dituzten auke-rak argitzen dituen, ingurumen- edo gizarte-esparrua ere bazter utzi gabe, betiere irizpide horiek kontratuaren xedeari lotuta badaude, era-kunde esleitzailleari aukeratzeko askatasun mugagabea ematen ez badiote, eta funtsezko printzipioei atxikitzen badiete”.*
- Batzordearen Interpretazio Komunikazioak, 2001eko urriaren 15ekoak, kontratu publikoen erkidegoko legeriari eta kontratu horietan gizarte-alderdiak txertatzeari buruzkoak, honako hau adierazten du: *“Kontratazio publikoari buruzko Arteztarauak hainbat aukera eskain-tzen dituzte gizarte-alderdiak aintzat hartzerakoan; kontzeptu horretan biltzen dira, batetik, funtsezko eskubideak bermatzeko neurriak, eta, bestetik, langabeziaren edo gizarte-bazterkeriaren aurkako lehentasu-nezko klausulak (lan-merkatutik baztertutakoak laneratzeko helburua dutenak, esaterako) edo jarduera positiboak.”*

- Kataluniako Generalitatearen uztailaren 16ko 7/2004 Legeak merkatu-erreserba bat ezartzen du laneratze-enpresentzat. Honako hau ezartzen du: *“Generalitatearen departamentu, erakunde autonomo eta enpresa publikoek obren, horniduren edo zerbitzuen administrazio-kontratu jakin batzuk gorde behar dituzte urrituak laneratzeko zentroentzat, gizarteratzeko eta laneratzeko enpresentzat, eta gizarte-bazterkeriako arriskuan dauden laneratzea edo gizarteratzea helburu nagusitzat duten irabazi-asmorik gabeko erakundeentzat”*.
- 2/2000 Legegintzako Errege Dekretua aldatzeko aurreproiektua, ekainaren 16koa, Herri Administrazioen Kontratuei buruzko Legearen testu bategina onartu zuena (HAKLTB). Hain zuzen ere, testu berria Europako araudiari egokitzeko, klausula sozialak hartzen ditu hizpide artikuluko berrietako batzuetan:

■ 102. artikulua. Kontratua betearazteko baldintza bereziak

1. Kontratazio-organismoek baldintza bereziak ezarri ahal izango dituzte kontratua betearazteari dagokionez. Betearazteko baldintza horiek ingurumen-arloko irizpideei edo gizarte-arloko irizpideei buruzkoak izan daitezke bereziki, betiere lan-merkatuan sartzeko zailtasun bereziak dituztenen enplegua sustatzearen, merkatu horretan gizonen eta emakumeen arteko desberdintasunak ezabatzearen, langabeziari aurre egitearen, lantokian prestakuntza jasotzea bultzatzearen, edo enplegurako estrategia koordinatuari –Europako Erkidegoa Eratzeko Itunaren 125. artikuluan zehaztua– loturik ezartzen diren beste helburu batzuk lortzearen.

■ 134. artikulua. Eskaintzak balioesteko irizpideak.

1. Proposamenak balioesteko eta eskaintza onuragarriena zehazteko, kontratuaren xedearekin zerikusia duten irizpide objektiboak hartuko dira kontuan: kalitatea, prezioa eta, bere kasuan ingurumen- edo gizarte-ezaugarriak eta abar.

■ Seigarren Xedapen Gehigarria.

2. Era berean, kontratuak esleitzeko lehenetasuna adieraziko da gizarte-bazterkeriako egoeran daudenen sustapen eta laneratzean berariaz aritzen diren enpresek aurkezturiko proposamenetarako. Gainera, lizitatuzaileak konpromiso formala hartzen badu gutxienez lanpostuen %30 ondoren azaltzen diren taldeetako lagunei egokitzeko, konpromiso hori balioetsiko da. Gizarte-zerbitzu publiko eskudunek egiaztatuko dute lagun horien egoera.

Zenbait emaitza



Kataluniako Generalitatek laneratze-enpresentzat ezarritako merkatu-erreserbak **sei milioi** euroko kontratazio-zenbatekoa ekarri zuen 2005. urtean, eta **300 laneratze-enplegu sorrarazi zituen gutxi gorabehera.**

1997an sortu zenetik 2005era arte, ADIGSA enpresa publikoaren “Posa’t a Punt” programak, enpresa esleipendunek nahitaez bete beharreko klausula sozialak ezarri, **1.309 lanpostu erreserbatu ditu laneratzeko zailtasunak dituzten lagunentzat.**

Iruñeko Udaleko Etxez Etxeko Arreta Zerbitzuaren lizitazioak klausula sozialak hartzen ditu aintzat. Jarraian, Gaztelan Fundazioari esleitu zaio zerbitzu hori, eta horrek ekarri du laneratze-enpresa bat sortzea. **Batez beste, 100 lagunek jarduten dute enpresa horretan (%50 laneratu berria da), eta enpresak milioi bat euro eta erdi fakturitzen du urtean.**

Gironako eta Sant Boi de Llobregateko udalek klausula sozialak bildu dituzte udaleko obra-kontratuetan: 47 eta 28 laneratze-enplegu sorrarazi dituzte, hurrenez hurren.

Estrategiak

Klausula sozialen politika egoki batek honako hauek guztiak zorrotz azterzea eskatzen du: proposatutako helburua, benetako ahalmenak, onuradunen laneratze-aukerak, politikarien laguntza, oztopo teknikoak eta eskuragarri dauden baliabideak. Horrek guztiak zehaztuko du garatzeko moduan egongo garen estrategia eta klausulen tipologia.

Lamegi proiektuak argitaratutako “Klausula Sozialak Ezartzeko Gidan” adierazi dugunez, honako hauek hartu behar dira aintzat, besteak beste:

- Onuradunen profil pertsonala eta profesionala. Gainera, onuradun horien prozesua eta ibilbidea erraztuko duen laneratze-sistematik egongo den edo ez zehaztuko da.
- Lurraldeko laneratze-enpresak: kopurua, ahalmena, jarduera-sektoreak, sortzen dituzten ondasunak, betearazten dituzten obra motak edo eskaintzen dituzten zerbitzu zehatzak.
- Orobat, dagokion Herri Administrazioak lizitatutako kontratuak aztertu behar dira, eta klausula sozialak eraman ditzaketan edo ez erabaki. Ahal bada, kontratu horiek guztiak zerrenda batean bilduko dira.

Informazio horri esker, laneratze-enpresak saritu edo ez saritzeko moduan egongo gara, hautaketa- edo puntuazio-irizpide bat baliatuz. Enpresa esleipendunak bazterkeria-egoeran dauden lagunak kontrata ditzan, edo irabazi-asmoa duten merkataritza-enpresak laneratzearen helburuan inplikatu eta Enpresen Gizarte Erantzukizuna sustatu nahi badugu, ordea, behartzeko irizpide bat baliatuko dugu.

Egin daitezkeen urratsak

1. Aldeko sektoreetan elkartasun zabala bultzatzea: enplegu-sistemak eta aldeko jarrera argi eta garbi erakusten duten gizarte-zerbitzuak nahiz laneratzeko erakundeak, klausula sozialak ezartzeko plataforma eta bultzada izan daitezzen.
2. Hasiera-egoera eta lurraldean dauden aukerak ezagutzea. Beharrezko materialak baliatu eta ekartzea, praktika onak ezagutzea, eta benetako esperientzietan aurrera egitea. Hasiera batean oinarrizko dokumentu bat egingo da, bertan oinarrizko kontzeptuak azaltzeko eta dauden aukeren zirriborroa egiteko.
3. Hasierako konpromiso politikoa lortzea, azterketa zehatza egiteko.
4. Txosten edo onespren juridikoa eskatzea eta egitea.
5. Kontratuak, jarduera-sektoreak eta lizitazio jakinetan klausula sozialak txertatzeko aukerak aztertzea.
6. Lurraldeko laneratzeko enpresen, gauza daitezkeen kontratu moten (obretako, zerbitzuetako, hornidurako kontratuak) eta eskaintzen dituzten produktuen/zerbitzuen katalogoaren azterketa.
7. Enplegarritasun-profilen eta onuradunak izan daitezkeen pertsonen nahiz taldeen laneratze-aukeren azterketa.
8. Aurrez zehaztutako informazioa eskura, estrategia egokitu bat diseinatu eta aplikatzeko ahalmen nahikoa dugun edo ez ebatziko dugu, eta alkatetzaren edo udalbatzaren akordio politikoa lortuko dugu, estrategia hori teknika- eta aurrekontu-arloan abian jartzea onar dezan.
9. Arlo batean edo arlo guztietan programa pilotu bat, lizitazio jakin bat edo merkatu-erreserba bat ezartzea, ahalmenen arabera politikopoliki aurrera egiteko.
10. Eraitzen etengabeko ebaluazioa eta ekintza eta lorpenen etengabeko komunikazioa. Koherentziaz, gainerako arlo eta kontratueta-
ra hedatzea, eragin handiagoa lortzeari begira: ekonomia-tamaina handiagoko kontratuak eta kontsumo handiko produktuak.

LAMEGI proiektua

Proiektuak egitura bat lortu nahi du gizarteratzea eta laneratzea errazteari begira, funtsezko lau zutabe hauek oinarritzat hartuta: laneratze-enpresak gizarte-talde antolatu gisa bermatzea; laneratzea enpresen gizarte-erantzukizunaren elementu gisa probatzea; enpleguko gizarte-merkatuak sustatzea; eta lizitazio publikoetan klausula sozialak ezar daitezen sustatu eta erraztea.

Klausula Sozialei dagokienez, hainbat material eta produktu argitaratu ditugu, honako eduki hauek barne:

- Klausula sozialak: sarrera eta kontzeptuzko azalpena.
- Klausulen onurei eta abantailei buruzko argudiatzea.
- Klausulak Ezartzeko Gida Praktikoa.
- Txostena eta Azterketa Juridiko zehatza.
- Esperientzia adierazgarrienen azterketa.
- Klausula Sozialak ezarri diren lekuei buruzko mapa.
- Klausula sozialak biltzen dituzten plegu eta esleipenen bilduma.
- Aplikatu beharreko araudiaren eta legediaren bilduma.
- Berariazko jurisprudentzia.
- Txosten eta irizpen juridikoak.
- Administrazio Klausulen Eredu Orriak, klausula horiek errazago ezar daitezen.
- Ponentziak eta iritzi-artikuluak.
- Hartutako udal-erabakiak.
- Protokoloak, dokumentazioa, eta material osagarri erabilgarriak.

Gainera, **Lamegi proiektuak aholkularitza teknikoa jartzen du Klausula Sozialak ezarri nahi dituzten erakunde eta administrazioen eskura.** Horrekin guztiarekin, lagun eta talde baztertuen gizarteratzea eta laneratzea erraztu nahi dugu, proiektuaren benetako azken onuradunak diren heinean.